

“Herri mugimenduarentzako esparrua da Plaza Beltza”

Plaza Beltza kolektibo sozio-politiko eta kulturala 2007an sortu zuten, Sopelan eta inguruan zegoen heziketa politiko txikiari aurre egiteko, alde batetik, eta herriko eragile desberdinei espazio bat eskaintzeko asmoz, bestetik. Espazio hori 2009an ireki zuten kulturgunean gorpuztu zen, Larrabasterrako Akilino Arriola 59-an (Jubilatuena Etxe aurrean). Bertan jarduera ugari egiten dira.

Plaza Beltza Kulturgunean zer aurki dezakegu?

Liburutegi soziala, gai sozial eta politikoak lantzen dituen. Gai desberdinei buruzko liburuak ditugu bertan: gai zehatzen inguruko eleberriak, herrien borrokak eta iraultzak, Euskal Herriko Historia, feminismoa, pedagogia, langileen borrokak, biografiak, osasuna, erlijioa... Bestalde aldizkari mordo dago, Euskal Herrian azken bi hamarkadatan publikatutakoak. Horiek hemeroteca alternatiboa osatzen dute. Filmak eta dokumentalak ere badaude. Horiez gain, kolektiboek plazaratutako materiala ere biltzen da. Bere funtzionamendua edozein liburutegiren modukoa da: bazkide egin eta 15 egunez atera dezakezu liburua. Bazkideza dohainik da. Irabazi asmorik gabeko ekimena baita Plaza Beltza.

Liburutegiaren eta kulturgunearen helburua zein da?

Liburutegi sozial, herrikoia, autokudeatua eta partehartzailea da, hori izan zen gure asmoa hasieratik. Ikuspegi komertzial eta kapitalistatik kanpo gelditzen delarik. Bestalde, kulturgunearekin eragile desberdinentzako topagune bat eduki nahi genuen, bertan hitzaldiak antolatzeko, proiektuak egiteko, kolektiboek materiala ezagutzera emateko... Herri mugimenduarentzako txokoa da. Larrabasterrako auzotarrentzat atari interesgarria bilakatu da. Elkarte zabala da eta toki irekia da.

Nola osatu zenuten liburuen bilduma?

Jendeak emanak dira gehienak. Auzo lan ikaragarria izan da. Jendea hasieratik inplikatu da honetan eta hori eskertzekoa da beti ere. Hor, goraiatzekoa da bereziki elkartearekin beti lotuta egon zen “Salus”, zendu zena. Hasieratik eman zigun babesa.



Zeintzuk jarduera antolatzen dituzue?

Jarduera desbedin ugari daude, Plaza Beltzak antolatuta edo beste kolektiboek proposatuta. Herrian badago gauzak antolatzeko grina baina non gauzatu falta izan zaio. Hilean pare bat ekitaldi izaten ditugu. Alde batetik, literatur tailerra daukagu. Bertan, idazle desberdinen lana ezagutzera eman eta horri buruzko eztabaida sortzen da. Liburuen aurkezpenak ere egiten dira horri lotuta. Bestalde, liburu azoka bat izaten dugu urtaro bakoitzeko, liburutegian edukitzeko modukoa ez den materialarekin. Liburuen prezioa sinbolikoa izaten da. Gai sozial eta politikoei buruzko hitzaldiak antolatzen ditugu bestalde. Erakusketak ere hartu ditu kulturguneak eta formakuntza politiko ikastaroak ere egin dira. Horrez gain, kontsumo taldea dugu.

Nola dabil hori?

Produktuak erosteko beste modu bat da. Baserritarrak zuzenean eramaten dio erosleri produktuen otzara bat eta berak aldi baterako horiek erosteko konpromisoa hartzen du. Horrela bitartekaritzarekin apurtzen da, produktuen benetako balioaren bila, ekonomia lokala sustatuz eta beti ere ekologian oinarrituta. Iazko irailean hasi ginen honekin 13 familiarekin eta gaur egun 20 daude. Aurki, bigarren talde bat ere osa daiteke.

Hilabeteko komertzioa

SUSEGUK

Suseguk (Su Seguridad Uribe Kost) es una empresa que se dedica a instalar sistemas de seguridad, controles de acceso y sistemas de protección contra incendios, todo ello con la homologación exigida. Concretamente, realiza los siguientes trabajos: sistemas de seguridad, intrusión/conexión a central receptora, detección y extinción de incendios, formación-supervisión-mantenimiento, gestión directa de subvenciones oficiales, circuito cerrado de TV, complementos y accesorios, proyectos de ingeniería y servicios de guardia 24 horas.

Inició su andadura en marzo de este año pero cuenta con profesionales con una experiencia superior a 10 años en la instalación de alarmas, cámaras, sistemas de detección y extinción contra incendios, ingeniería y supervisión de instalaciones, complementos y accesorios...

Suseguk trabaja con particulares, comunidades de vecinos, establecimientos comerciales y naves industriales de toda Bizkaia. También tiene la licencia oficial necesaria para trabajar en Euskadi.



SUSEGUK

Sipiri 8. Departamento 208

Teléfono: 94.676.34.57.

E-mail: dptocomercial@suseguk.net

Horario de lunes a viernes:

de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00 horas.